



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2021/06/30EAN**

### **Gaur egungo egoera Arabako Errioxan**

2021eko ekaina bereziki asaldatua izan da eguraldiari dagokionez; izan ere, ekaitzek prezipitazio ugari eta ohi baino tenperatura txikiagoak ekarri baitituzte udako lehen hilabete honetan; eta txarrena: euri zaparradak, 180-200 l/m<sup>2</sup> arte erregistratu dira leku batzuetan hilabete honetan bakarrik, eta txingorra, leku jakin batzuetan. Gorabehera horiek, gogorrakoak izan diren lekuetan, kalte egin diete mahatsondoei uztan, ekoizpen kostuak handituz eta kalte handiak eraginda komunikazio azpiegituretan eta bertan mahastietan lurra arrastatzearen ondorioz, batez ere malda handieneko eta landare estaldura babeslerik gabeko mahastietan, estalki horrek, gainera, aukera ematen baitu tratamenduak azkar egiteko horrelako ekaitzen ostean.

Ekaitzik kaltegarriena ekainaren 3ko arratsaldean izan zen. Ekainaren 14ko eta 16ko ekaitzak ere oso larriak izan ziren. Prezipitazio ugari utzi zuten, eta, Errioxako autonomia erkidegoko herri mugakideetan (Fuenmayor, Logroño edo Navarrete) izandako eragin katastrofikoak izan ez arren, lehenengoaren ondorio suntsitzaileak indartu zituzten.

Ekainaren 3ko eta 14ko ekaitzek ia eremu berberetan izan zuten eragina, intentsitate handiagoarekin, lerro zuzenean 10 kilometro baino gutxiagoko aldea duten bi eremutan: bata, epizentroa Ribartallo eta La Escobosa parajeetan izan zuena, Lapuebla eta El Campillar artean; eta bestea, Las Ontanillas eta Sobremoron, Iekoratik 2 kilometro hego-mendebaldera, udalerrian bertan eta Lantziegon. Aipatutako eremuetatik hurbil dauden mahastiek kalteak dituzte ekaitzen gunearikiko distantziaren arabera.

Eurite aldi hori mahastiaren loratzearekin eta fruitu hartzearekin batera gertatu da, eta aldi hori bereziki sentikorra da labore horrentzat; izan ere, baldintza normalen edozein alteraziok eragina izan dezake loretik fruiturako trantsizioan. Horrela, aipatutako eremuetan, harri jasaren kalte zuzenei gehitu zaizkie lotura txarraren ondoriozkoak. Hori dela eta, oro har, fruitu hartzearen amaiera eskasa izan da, eta, beraz, mahastiak kanpaina honetarako zuen ekoizpen ahalmena murriztu da.

Nolanahi ere, ekaitzek ez dute eragin bera izan Arabako Errioxa osoan. Eskualdea bi zatitan bereiz daiteke: ekialdean dagoen herena, non ekaitzek intentsitate handienarekin bota baitute, eta gainerakoa, non prezipitazioak txikiagoak izan baitira eta ia harririk ez den sortu.

Txosten hau idazten ari garen egunean, eta ekaitzek kalterik eragin ez duten Arabako Errioxako eremu zabalenean, hau da, mendebalderago dauden bi herenetan, ur erabilgarritasun handia dela-eta, aihen berdeak garatzen ari dira, landaredi oparorekin eta uzta normaltasunaren barruan biltzeko itxaropenarekin. Mahastia osasun baldintza onetan mantentzen da, ez arriskurik gabe, eta uzta itxaropenak Kontseilu Arautzaileak kanpaina honetan ezarritako muga babesgarrietara irits daitezke (gehieneko etekinen % 95).

Arabako Errioxako ekialdeko herenean, aldiz, hiru agertoki ikus daitezke: mahasti oparoak, beren garaiarekin alderatuta aurreratuak, errendimendu normalak lortzeko adina ekoizpen potentziala dutenak; harri jasek edo fruitu hartze eskasak eragindako kalteak dituzten mahastiak, ekoizpena gutxituko dutenak; eta harri jasek oso kaltetuak izan diren mahastiak, horietako batzuk apenas hostorik eta mahats mortorik gabeak, galera handiak dituztenak.

Arabako Errioxako eremu osoan, mahastia fruitu hartzearen amaieraren (J) eta alea ilarraren tamainaren (K) artean dago; horrek esan nahi du ohi baino 8 egun inguru lehenago dagoela, eta hori txikiagoa da kontuan hartzen baditugu bakarrik zikloa, oro har, aurreratzen ari den azken urteak.

Osasunari dagokionez, lorealdi-fruitu hartze aldi fenologikoa, bereziki sentikorra eta arriskutsua mildiugatik, ia gorabeherarik gabe gaintitu da, prezipitazio handiak izan arren. Tratamenduek eta tenperatura baxuek onddo horren hedapena geldiarazi dute. Hala ere, neurri txikiagoan bada ere, arriskuak bere horretan jarraitzen du, eta, beraz, uztaila amaierara arte, gutxienez, tratatu behar da, orduantxe jaisten baitira arriskuak. Oidioari dagokionez, bereziki erne egon behar da aurten ere. Foku batzuk ikusten ari dira dagoeneko, eta baldintzak oso egokiak dira beste gaixotasun fungiko hori garatzeko. Esku hartzeek muturreko arrisku horrekin bat etorri behar dute, bestela kalteak handiak izan baitaitezke. Hori dela eta, mahastizainak, Arabako Errioxako gaixotasun kriptogamiko sistemiko horren ondorioen jakitun, tratatzen ari dira maiatza hasieratik laborea babestuta edukitzeko. Mildiuaren eta oidioaren aurka, une eta arrisku mailaren arabera produktuak erabili behar dira, eta, ahal dela, sartu eta banatu egin behar dira mahatsondo osoan, ez da laborerik egin behar, eta aireztapena erraztu behar da, puntak mozte, hostoak kentze eta kimu berrien kimuketa eraginez.

Horrez gain, beste izurrite batzuk ere eragina izaten ari dira aurten, adibidez, pirala eta akariosia, eta laster sitsaren bigarren belaunaldia izango dugu; beraz, patogeno horiei ere adi egon behar da tratatzeko, baldin eta ez badira aurreikusi kontrol alternatiborako bitartekoak, hala nola nahasarazte teknika, presioa handia bada.

Egun hauetan, fruitu hartzea amaitu ondoren, Mahastizaintza Zerbitzuak ekaitzek errendimenduetan izan dituzten kalteen balorazioak egin ohi ditu. Kalkulu horien arabera, 200-300 hektarea inguru geratzen dira, ekaitzek intentsitate handienarekin bota zuten guneetatik gertu, oso kaltetuta zuzenean txingor eta uragatik, eta ekoizpen murrizketak % 60tik gorakoak ere lursail oso zehatzetan.

### **Arabako Txakolinaren gaur egungo egoera**

Neguko eta udaberriko ur gabezia Aiarako haranean ekaineko prezipitazio handiek konpondu dute. Zorionez, txakolinaren eremuan ez da ekaitzik izan, eta, ondorioz, mahastia garapen baldintza onetan mantentzen da, eta ur ugari dago udako beharretarako.

Behin fruitu hartze fasea amaituta, zikloa apur bat aurreratuta, mahats lagin moderatu bat ikusten da. Zalantzarik gabe, euriak eragina izan du fruitu hartzean, martxoko eta apirileko izozte goiztiarrek ekoizpen ahalmena murriztuta zegoenean gainera.

Osasunari dagokionez, mildiu orban ugari ikusten ari dira, nahiz eta orain arte ez duten eragin negatiborik izan. Oidio arriskuak handiak dira Arabako Errioxan bezala, eta, eremu horretan bezala, onddo horiek ez garatzeko eta labore baldintza onetan mantentzeko tratamenduak eta prebentzio neurriak areagotu beharko dira.

Guardia, 2020ko ekainaren 30a

**MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA  
NEKAZARITZA SAILA**